

2024ko
URTARRILA

4.zk

ville de
HASPAREN
HAZPARNEko
herria



HAZPARNE Infos

- Hazparneko herriko aldizkaria -



4-5.or
herri barnea aldaturik



6-7.or
Kaperaren berritzea



8-9.or
Bizilekuen sortzea herri barnean

Ura, ontasun baliosa klima aldaketaren aitzinean

Euskal Elkargoak 2020an ur-baliabideari buruz eraman ikerketa batek erakutsi du klima aldaketarengatik Ipar Euskal Herrian eskuragarri den uraren % 30 galduko dela hemendik 2040ra. Larrialdiak saihesteko eta kalitatezko edateko ura denei bermatzeko, Euskal Elkargoak Idorte Plana plantan ezarri du Frantziako planari jarraitzeko eta haren osagarri. Plan horrek 4 ardatz ditu: ur-baliabidea optimizatzea, soiltasuna antolatzea, elkartasuna bermatzea, berrikuntza sustatzea. 40 milioi euroko inbestimendua beharrezkoa da.

Partikularrentzat: Dirulaguntza euri-urak biltzeko ontziak ezartzeko.

UR PREZIO BEREZIA ETA LAGUNTZAK LABORARIENDAKO

2024an Euskal Elkargoak proposatuko du prezio desberdinak plantan ezartzea laborantzarako, bereziki baratzeazintzarako eta abere hazkuntzarako.

Kontsumoa, eta, beraz, prezioak bereizteko, beharrezkoa da etxeko kontagailuak eta laborantzako kontagailu berdeak bereiztea.

Etxeko eta laborantzako kontagailuen bereiztea

Euskal Elkargoak kostu osoa ordainduko du.

Kutsadura zergaren dispentsa bada, beraz 20 €-ko abonamendua 40 €-koaren ordeiz + eko-elkartasunezko prezioa hemendik 2024ra.

Kontagailu berdea

Baratzeazintzat eta hazleentzat, edateko ur gutiago hartzeko materiala instalatzean.

Dirulaguntzak:

Hazleentzat, azaleko iturri pribatuak egoera onean ezartzen laguntzeko.

Diru eta teknika laguntzak etxaldeak laguntzeko bertutezkoagoak diren kudeaketa-modeloei buruz joateko eta ur-baliabidea zaintzeko.

ErrekAgri

Ur zerbitzua – Hazparnealdea: 05.59.29.17.72
<https://www.communaute-paysbasque.fr/vivre-ici/leau>

Urte berri on 2024



Hazpandar maiteak,

Agintaldi erdian gaude, gure herriaren zerbitzatzeko gure engaiamenduaz eta lehen hiru urteak markatu dituzten obratzeez puntua egiteko parada.

Karguan sartu ginelarik aldaketaren bidea abiatu genuen hitzeman bezala hTHPa aldatuz, bi jabetza handi eskuratuz etxebizitzaren kontrol publikorako operazioetarako: Arteeta lursaila eta Duhart etxea, non obrak hasiko baitira 2024an.

Eguneroko joan-jin laburrak baldintza seguruetan bultzatzeko, bizikletariendako eta oinezkoendako lehenbiziko bidea egin genuen, dinamika berri bat emanez mugikortasun eztiaren eta iraunkorraren alde.

2023. urtean proiektu handi bat gauzatu dugu: herri barnea guziz berritu dugu, erakargarritasuna indartuz eta arkitektura ondarea balorizatuz. Plaza berria bizia da, aktibitate eta animazio mota desberdinez aberatsa.

2023. urtean, gainera, monumentu historiko gisa sailkatua den gure herriko joiaren arraberritzea bururatu da: Misionesten kapera. Eraikin horrek lotura afektiboa irudikatzen du hazpandarren eta haien historiaren artean, eta egun edertasun handiena berriz atzemana du.

ÉDITORIALA

Maila handiko proiektu horiek gauzatu dira tokiko zergak emendatu gabe. Beste eragile instituzional batzuekin eskuz esku lan eginez, funtsezkoak ziren kanpoko finantzamenduak konbentzitu eta mobilizatu ditugu.

Heldu den maiatzaren 20an, Hazparnek olinpiar suari ongiatorria egiteko ohorea ukanen du, nazioen arteko batasunaren eta bakearen ikur indartsua baita. Egungo nazioarteko testuinguruan, izpiritu olinpikoaren inguruan bat egiteak esperantza izpi bat eskaintzen du, fermuki xede duguna.

2024an gure norabideak segitzen du hartu engaiamenduen alde egiten, gure bizi ingurumena etengabe hobetzeko nahia segituz.

Herriko Kontseilu osoaren izenean, har itzazu, hazpandar maitea, ene agiantzarik zintzoenak arrakastaz eta loratzez josi urte berrirako.

Bihotzez,

 **Isabelle PARGADE**
AUZAPEZA

ARGIBIDE PRAKTIKOAK

AUZAPEZAREN PERMANENTZIAK
Astean behin eta hitzordua harturik
05.59.29.17.75
communication@ville-hasparren.fr

HARRERA HERRIKO ETXEAN
Asteleheneetik ostiralera, 9:00etatik
12:30era eta 14:00etatik 17:00etara
Larunbat goizetan 9:00etatik
12:00etara
(Egoera zibilaren bulegoa bakarrik)
05.59.29.60.22

HERRIZAINTZA
05.59.29.17.71
police-municipale@ville-hasparren.fr

«ELGAR» ZERBITZU PUBLIKOEN ETXEA
11 rue Gaskoina
05.59.70.20.36
mspelgar@ville-hasparren.fr

GEUZ
Elgar, Hazparneko zerbitzu publikoen etxea
05.59.70.29.07

PIERRE ESPIL MÉDIATEKA
Elgar, Hazparneko zerbitzu publikoen etxea
05.59.70.16.83

ELKARTE BIZITZAREN BULEGOA
Elgar, Hazparneko zerbitzu publikoen etxea
05.59.29.17.77
associations@ville-hasparren.fr

Argibide gehiago Herriko Etxearen
webgunean:
ville-hasparren.fr



KREDITUAK ETA LEGEZKO OHARRAK

Hazparneko herriko aldizkaria
– 2024 urtarrila –
Argitalpen arduraduna: Isabelle Pargade
Argazkiak: Hazparneko Herriko Etxea
Paper birziklatuan inprimatua
Mendiboure inprimategia - Kanbo



HERRI BARNEA ALDATURIK

MODERNOA, ERAKARGARRIA, LANDAREZTATUA



LOTURA ETA

ANIMAZIO LEKUA



- Udako astearteetan,
- Merkantuz, mutxikoak, dantzak, kantuak...

- gaueko merkatuak,
- Izarren gaua

tokiko elkarten parte hartzearekin.

ALTZARI EROSOAK ATSEDEN HARTZEKO, COXOAN EGOTEKO, IKUSCARRIAK IKUSTEKO.



20KO EREMUA: OINEZKOEK DUTE LEHENTASUNA EREMU GUZIAN, LEKU LASAIA



Mugikortasun urriko pertsonentzat helgarri.



APARKATZEKO LEKUAK ATXIKIAK INGURUETAN, MANERA DESBERDINEAN ANTOLATURIK

sentsoreak sartu dira lurlean Herrizaintzaren eginbidea errazteko eta loturik den softwareari esker datu fidagarriak ukaiteko. Sentsoreei esker egun guzian aldizkatze erregularra badela ikus daiteke, puntako tenoreetan ere, eta, beraz, ibilgailua denden inguruetan utz daitekeela erosketen egiteko.



P **ARCIBIDEAK SENTSOREEI BURUZ**
BANA BESTEKO, APARKATZEKO LEKU BATEAN
25 IBILGAILU ALDIZKATZEN DIRA EGUNEAN



Aparkaleku bat gehiago: Postarekin hitzarmen bat egin da 9 leku publiko ukaiteko haren aparkalekuan, plazatik hurbil-hurbil.

BERRITZEAREN KOSTUA

2 164 789 €

OBRETARAKO DIRULAGUNTZAK:

HERRIKO ETXEAK	887 591 €	%41.5
ESTATUAK (DETR)	540 000 €	%25
DEPARTAMENDUAK (CD64)	406 500 €	%19
TE64	229 869 €	%10.6
EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAK	76 319 €	%3.5
ESTATUAK (OAZN)	24 510 €	%1



Segurtasun neurriak dituen plaza animazioak antolatzeke, zeremonietarako hilen oroitarran.

KOMERTSANTEEN KALTE-ORDAINEN BATZORDEA

Herriko Etxeko taldeak nahi izan du batzorde hori plantan ezarri kalteak jasan dituzten komertsanteendako, 9 hilabete iraun duten obren denboraldiarengatik lotu kalteen ordainetan.

Instantzia ofiziala da, administrazio auzitegiko magistratu bat du

buru, Herriko Kontseiluko hainbat osagaietako hautetsiez osatua da, ekonomia alorreko ganberetako ordezkarienez, kontu-adituen ordenako ordezkarienez, herriko diruzainaz, Aldatuko zuzendariaz.

Kalte-ordain bat ukaiteko, araudiak zehazten zuen beharrezkoa zela justifikatzea urteko negozio zenbatekoaren %10eko galera gutienez -egiazatu kontulari-dokumentuetan oinarriturik-.

Obren eremutik kanpo kokatuak

diren saltegiek ere dossier bat aurkez zezaketen kalte-ordaina galdatzeko.

5 komertsantek dossier bat aurkeztu dute: komertsante horietarik 2 ezin izan ditugu atxiki zenbatekoa ez baitzen manera adierazgarrian apaldu. Hiruk %10eko, %10,6Oko eta %32ko galera ekonomikoa justifikatu ahal izan dute.

Urteko negozio zenbatekoaren galeraren %90erainoko kalte-ordaina ukan dute, 31 367€ orotara.

BIHOTZ SAKRATUAREN KAPERA

LAU URTEZ OBRETANIZAN ONDOAN, BIHOTZ SAKRATUAREN KAPERA ESTREINATU DA JOAN DEN ABENDUAREN 8AN, INSTANTZIA OFIZIALEN, OBRAK EGIN DITUZTEN OFIZIALEEN ETA MEZENASEN PRESENTZIAN.




ZAHARBERRITZEAREN KOSTUA 2 468 394 € OBRETARAKO DIRULAGUNTZAK:

HERRIKO ETXEAK	1 345 551€	%54.5
ESKUALDEAK (KAEZ)	829 243 €	%33
ESKUALDEKO KONTSEILUAK	282 000 €	%11.4
LE PÉLERIN SARIAK	5 000 €	%0.2
MEZENASGOAK	4 300€	%0.2
MÉRIMÉE FUNDAZIOAK	2 300 €	%0.1



ONDAREA



Mediatekarekin partaidetza hertsian, 2 erakusketa iragan dira azaroan:

“Francis Jammes idazlearen potretak” (Orthezeko museoari esker) eta Herriko Etxeak 2021ean zapatagintzaz abiatu objektu, tresna eta dokumentu bilketaren aurkezpena.

TUPI: Azaroan, 3 egunez pasa da Hazparneri buruzko erreportaia bat (webgunean oraino ikus daiteke).



Hiriart, eta Lafaye arkitektoek eraiki zuten 1928an, eta orduan, Lopez de la Vega kalonjeari esker Euskal Herriko elizatiar anitzek emaitzak egin zituzten eta Art déco estiloko barneko apainketan parte hartu.

Bihotz Sakratuaren kapera monumentu historiko gisa sailkatua da Kultura Ministerioaren 2011ko urtarrilaren 31ko erabakiaren arabera.

Estatuarekin, Akitaniako Kontseiluarekin eta Departamenduarekin hitzarturik,

HAZPARNEKO herriak eraikin hori eskuratu zuen 2012an, zaharberritzearen obragintza bermatzeko, eta horri esker finantzamendu publiko zabalagoa ukan du. Mezenasak eta emaileak ere xerkatu ditugu obren aurrekontua osatzeko.

Joan den uztailetik berriz ere publikoari zabaldu da bisita publikoen bidez. Bihotz Sakratuaren kaperak jadanik 1200 bisitari ukan ditu ofizialeen lan zoragarria mirestera jinak.

Hemendik aitzina kaperan egitea posible diren ekitaldi kulturalak eta heziketa

jarduerak hartuko eta garatuko ditugu (kontzertuak, hitzaldiak, historia, arteak...).



Biziberritza hasten du...

BISITA GIDATUAK KITORIK ETA ERRESERBATU GABE HAZPANDARRENTZAT:

OTSAILAREN 3AN,

LARUNBATEAN

15:00ETAN

MARTXOAREN

2AN, LARUNBATEAN

15:00ETAN

HITZORDUA HAN BEREAN



EUSKARA



Familiako liburuxka elebidunaren plantan ezartzea



LIVRET DE FAMILLE
FAMILIAKO LIBURUA



BIZILEKU SORKUNTZA HERRI BARNEAN

DUHART GUNEAREN BERRITZEA



1 JABEGORA HELTZEA KOSTU MENPERATUAN

Bizitegi nagusi gisa erabiltzeko **7 bizileku proposatuko** dira, lehentasunez Hazparnen bizi direnentzat. T1 bis bat, T2 bat, bost T3 Elkartasunezko Kontratuaren bidez, Bizitegia erakundearekin. **Den saltegiaren berritzea eta alokatzea (70 m²).**

2 BI T4 ALOKATZEKO KOSTU MENPERATUAN

Eraikin berri batean familiako bi bizitegi antolatuko dira (T4), eta leku bat izanen da paramedikuntzako ofizioetarako.

3 ETXE PARTEKATUA ADINEKOEN BAKARTASUNAREN KONTRA



BILKURA PUBLIKOIA GUREKIN ELKARTEAREKIN 2023KO UZTAILERAN.

Lehenengo lantegiaren lekuan, alokatzeko 8 T2 pribatu proposatuko dira adinekoendako (65 urtekoak eta goitikoak). Leku komun gehigarri batzuk erabiltzen ahalko dira jendearen errezibitzeko eta aktibitateak edo ateraldiak antolatzeko, partaidetza izenpetu dugun Gurekin elkarteko profesional kalifikatuek kudeaturik.

Leku hori herri barnean kokatua baita hango egoiliarrek errazkiago eskura ukanen dituzte hurbileko zerbitzuak.

i Adinekoen bakartasunaren konpontzeko aterabidea, eta erretreta ttipientzat eskuragarri!

4 LEKU KOMUNAK BELAUNALDIARTEKO BIZIGUNEAN

Atseginezko lorategi handi bat izanen da harremanak errazteko.

DIREN BIZILEKUEN HOBETZEA



Biharko Hiri Ttipiak programaren kariatara, Hazparnek berriz erran du bere herri barnea osoki berritzeko xedea, lehentasunezko norabide batekin: "Diren bizitegien kalitatea hobetzea eta etxe hutsen kontra borrokatzea".

Karia horretara, Euskal Hirigune Elkargoak diagnostiko bat egin du herri barneko eremu hertsu batean. Plantan ezarri dirulaguntza dispositiboak palanka-efektu gisa erabiliko dira bizitegi horien kalitatea eta erosotasuna hobetzeko. Dirulaguntza horiek baliabideen arabera emanen dira.

Bost urteko partaidetza-hitzarmena izenpetu da herriaren, Euskal Elkargoaren, Departamendu Kontseiluaren eta Estatuaren artean, Bizilekuen Nazio Agentziaren (ANAH) bidez, metatu dirulaguntzak emateko jabe okupatzaileei eta jabe alokatzaileei, gai hauen inguruan:

- Energia pobrezia
- Pertsonaren autonomia
- Biziki andeatuak diren bizilekuen kontrako borroka

Sari osagarriak plantan ezarriko dira etxe aitzinen berritzeko edota herri barneko etxe hutsak ez gehiago hutsak izateko.

Parte hartze araudia idazten ari dira.

i Argibide gehiagoren ukaiteko, sar zaitzke harremanetan "Biharko Hiri Ttipiak" programaren herriko misio kargudunarekin: p.lesbordes@communaute-paysbasque.fr

ERREPIDEAK - HERRI ERAIKINAK

HERRIKO LANGILEEK EGIN OBRAK



URTXINTXAK ATLETISMO KLUBAK ERABILTZEN DUEN MATERIAL-LOKALAREN SECIDAN ALDAGELAK, KOMUNAK ETA DUTXAK ERAIKI DITUZTE.



MENDELA CUNEA

MENDELAKO **PANEL FOTOVOLTAIKOAK** ALDATU DIRA 10 URTEKO PROZEDURAREN ONDOTIK: PANELAK PLANTAN EZARTZEAN AKATS BAT GERTATU ZELA AGERTU DA.

MENDELA KANPOALDEA BERRIZ TINDATU DA.



URTSUAN POTTOKAK ETA BEHIAK HETSIRIK ATXIKITZEKO LEKUR PLANTAN EZARRI DUTE.

ERRUCBI KLUBEKO MATERIALAREN EZARTZEKO ERAIKINA EGIN DUTE.

JEAN VERDUN ESKOLAN **PERGOLA BIOKLIMATIKOR** EZARRI DA EURITIK ETA ECUZKITIK BABESTEKO.

HAURRAK ETA HEZIKETA TALDEA KANPOAZ BALIA DAITEZKE EDOZEIN ARO IZANIK ERE.



ERREPIDEEN



MANTENUA ETA



BERRITZEA



HERRIAN ETA AUZOALDEETAN



pays Basque euskal Herria

COMMUNAUTÉ D'AGGLOMÉRATION
HIRIGUNE ELKARGOA
COMUNAUTAT D'AGLOMERACION

UN TERRITOIRE ORGANISÉ EN 10 PÔLES



HERRIKO IGERILEKUAREN KUDEAKETA EUSKAL ELKARCOARI ESKUALDATU ZAIO 2023KO MARTXOAZ GEROZTIK. IGERILEKUA OSOKI BERRITZEKO IKERKETA HASIA DA.